



# ELKARTEAREN FITXA

Elkartearen izena: **MEDICUS MUNDI ARABA**

## Esparrua :

Komunitarioa	Gizarte bazterketa	Dibertsitate Funtzionala	Garapenaren aldeko lankidetzak
Ingurumena	Babes zibila	Soziosanitarioa	Emakumea eta Genero Berdintasuna
Giza eskubideak	Adikzioak/mendekotasuna	Osasuna	Kirola
Hezkuntza eta Prestakuntza	Animaliak babestea	Immigrazioa	Kultura
Gazteria eta denbora librea	Euskararen sustapena	Enpresa	Bidezko

## Erakundearen azalpen laburra:

**Medicus** mundi Álava/Araba irabazi asmorik gabeko erakundea da, botere publikoetatik eta izaera ekonomiko, politiko edo erlijioso duten bestelako erakunde edo taldeetatik independentea da. Mundu bidezkoago baten alde lan egiten duen lagun talde batek osatua, helburu dugu egoera lazgarriak pairatzen dituzten herrien egoera sanitarioa eta humanitarioa hobetzea, baita txirotutako herrialdeetan gure ingurune hurbilenean gertatzen diren bidegabekeriak eta berdintasunik eza salatzea ere.

Medicus mundi Álava/Araba izateko arrazoia da giza eraldaketa, elkartasun kultura eta herritar konpromisoa sortzen laguntzea; hartara, mundu bidezko eta zuzen baten oinarriak ezarriz, pobrezia errotik desagerraraztea posible izango da, eta era berean, OSASUNA guztion esku egotea ahalbideratuko da, beti ere, giza eskubideak, genero berdintasuna eta pertsonen duintasuna ardatz.

Medicus mundi Álava/Araba-ren misioa lortzea bazkideen, boluntarioen eta laguntzaileen lan komunari esker egiten da, eta lagungarria da planetaren herririk eta komunitaterik txirotuenek giza garapena lortzeko egiten dituzten esfortzuak erdiesteko, batez ere, osasuna sustatzeko jardueretan indar bereziak jarritz.

## Boluntarioen programa:

Pertsona boluntarioak **Bidezko Merkataritzako Dendan** aritzeko, Gasteizen

- Gure denda Gasteizko Pio XII kalean dago, eta pertsona biziak, sortzaileak eta konprometituak behar ditugu boluntarioen taldeko kide izateko.
- Gure dendaren helburu nagusia da herritarrak Kontsumo Arduratsuz eta Bidezko Merkataritzaz sentsibilizatzea, bai eta horrek osasunerako eskubidearekin duen loturaz ere.
- Bidezko merkataritzako produktuak ezagutzea eta saltzea.
- Informazioa ematea gurekin lan egiten duten ekoizle taldeez eta pertsonaz.
- Denda eta erakusleihoa apaintzea; logistika oro har dendan.

- Jarduerak eta ekimenak antolatzea, dendan eta dendatik kanpo egiteko (egun jakin batzuetan, sentsibilizazio eta kaleko ekintzak direla-eta).
- Urtean zehar, azoka eta ekitaldietan parte hartzea.

### Egunak eta ordutegia:

- Goizetan, astelehentik ostiralera, 09:30etik 13:30era, eta arratsaldeetan 17:00etatik 20:00etara. Behar denean, Denda Batzordea arratsaldeetan biltzen da, 16:00etatik 18:00etara.

### Betebeharrak:

- Pertsona dinamikoak, sortzaileak eta konprometituak.
- Gizarte arazoek gaineko kezka izatea, eta konpromiso soziala giza eskubideen alde, pobreziaaren kontrako borrokan, genero-berdintasunaren alde, etab.
- 18 urtetik gorako edonor izan daiteke.
- Ez dago parte hartzeko konpromiso minimorik; zure denbora librearen arabera eta zenbat denboraz aritu nahi duzun. Baina, behin konpromisoa formalizatutakoan, bete egin beharko duzu.

### Harremanetarako:

Ion Ander Areses

Los Isunza Kalea 9, 1<sup>a</sup>Eskuina

Ordutegia: Astelehenetik Ostiralera 9:30- 14:30

[ionander.areses@medicusmundi.es](mailto:ionander.areses@medicusmundi.es)

945 288031